

amama
irrifarreen ondarea





amama: irrifarrean ondarea



Antzezlanaren sortzeko proiektua

Atarikoa

Gure amamak magia egiten du...

Gure amonak munduko krokatarik goxoenak egiten ditu...

Gure amatxi ez da inoiz nekatzen...

Gure amumaren ipuinak mundialak dira...

Gure amonak dena daki...

Gure abuelak besarkadarik goxoenak ematen ditu...

Gure amatxik zirkura eramaten nau...

Gure yayak armairu berezi bat dauka bere etxean...

Gure amumak emakumeen nazioarteko egunean manifara eramaten nau...

Gure abuela eta bere lagunek oso ondo pasatzen dute...

Gure amatxi da beti gehien txalotzen nauena...

Gure amona ni bezalakoa zenean ez zegoen internetik...

Gure amatxi ni bezalakoa zenean ez zegoen mugikorrik...

Gure abuela ni bezalakoa zenean bere herria utzi eta Euskal Herrira etorri zen...

Gure amama ni bezalakoa zenean, bizikletan hasi zen eta neska zelako kosta zitzaion...

Ez dakit gure amona nolakoa zen ni bezalakoa zenean. Ez dut ezagutu, baina kontatu didate...

Gure amatxik ni bezalakoa zenean...

Jorratuko ditugun gaiak

“Amama. Irrifarreen ondarea” lan hunkigarri eta magiko honek gure familiako sustraian aberastasuna ospatzen du, amama baten aurpegiko zimur bakoitzak istorio bat kontatzen duela gogoraraziz, eta irribarre bakoitza denbora zeharkatzen duen opari bat da. Antzezlanak familiako istorioen inguruan hausnartzera gonbidatzen du publikoa, belaunaldien bitartez irauten duten denboraz kanpoko ikasgaiekin konektatuz.

“Amama: Irrifarreen Ondarea” antzezlan bat baino gehiago da; gure amonek oparitzen diguten jakituriari, pazientziari eta betiereko maitasunari egindako omenaldia da, gure oraina argitzen eta etorkizuna gidatzen duen irribarre-ondarea utziz.

Amonen esperientziek eta jakituriak belaunaldi gazteenen bizitza aberastu dezaketela azpimarratuko dugu.



1. Belaunaldien arteko lotura:

Lanak belaunaldi desberdinen arteko loturak ospatzen eta indartzen ditu, jakituria eta balioak amonetatik bilobetaraino transmititzearen garrantzia erakutsiz.

2. Hezkuntza-balioa:

Narratibaren eta pertsonaien bidez, hurrek familiaren historiaz, tradizioen garrantziaz eta erresilientziaz, maitasunaz eta errespetuaz ikasten dute. Hezten eta entretenitzen duen antzerki-esperientzia. Umeek bizitza lezio baliotsuak ikasiko dituzte ondo pasatzen duten bitartean.

3. Kultura-inklusioa:

Obrak kultura-aniztasuna eta familia-tradizioak nabarmentzen ditu, inklusioa eta kultura desberdinekiko errespetua sustatuz. Hainbat kultura eta tradiziotan zeharreko bidaia, gure kultura-aniztasunaren ezagutza eta balioespena aberastuko dituena.

4. Originaltasuna eta sormena:

«amama: Irrifarreen Ondarea» lan originala da, narratiba fresko eta sortzailea eskaintzen duena, elementu magikoekin eta denboran zeharreko bidaiekin. Istorio paregabe eta magikoa, entzuleak denboran zehar bidaia batean eramango dituena, gure amamen legatuak arakatzuz.

5. Kalitate artistikoa:

Murgildu zaitez kalitate handiko ekoizpen batean, eszenografia ikaragarriarekin, musika hunkigarriarekin eta bihotza ukituko dizuten emanaldiekin.

6. Sormena sustatzea:

Antzezlanak sormena eta irudimena sustatzen ditu haurrengan, eta haien familiako istorioak aztertzeraz eta arte-sormena baloratzeraz inspiratzen ditu. "Inspiratu gazteak sortzaile izatera eta beren familia-sustraiak esploratzeraz narratiba magiko eta inguratzaile baten bidez."

7. Inpaktu emozionala:

Guztion bihotza ukituko duen obra, maitasunaren eta familiaren garrantzia gogoraraziz."

8. Egungo garrantzia:

Gero eta digitalagoa eta deskonektatuagoa den mundu honetan, lanak mezu garrantzitsua eskaintzen du harreman pertsonalen garrantziari eta familiako istorioen balioari buruz. "Deskonexio digitalaren garaian, 'Amama: Irrifarreen Ondarea' k giza harremanen eta definitzen gaituzten istorioen balio ordezkazina gogorarazten digu."

Sinopsia

Gure antzezlanaren protagonistak bere eskolako lagun guztien amonak ikusten ditu, eskolara haien bila datozenean, edo parkean, edo musikara eramaten dituztenean... baina gure protagonistak ez du amamarik. Eta bere gogo eta indar guztiz amama bat BEHAR du.

Berdin zait amama, amona, yaya, avia, abuela, amatxi, jida, amuma, paparuñí... baina AMAMA bat BEHAR dut!

Amari esango dio amama behar duela, baina ama lanpetuegia dabil jaramon egiteko, beraz... Gure protagonista udaleko bulego batera joango da ea han ba ote dagoen horrelako zerbitzurik, edota birziklatze gune batera ere joango da... baina ez du lortuko.

Horrela bada, iragarki bat idatziko du, zer nolako amama nahi duen zehaztuz.

Amona mordo bat agertuko zaizkio:

Amama rokerokantari bat, denbora guztian sukaldatzen ari den amama bat, zakur mordoak dauzkan amama, bidaiatzea ikaragarri gustatzen zaion amama, yoga eta meditazioa egiten duen amama... eta beste amona mota mordo bat.

Gure protagonista erabat lur jota dago, ez du benetan nahi duena topatzen. Ikaragarri triste dago. Artizarrari begiratu eta galdetuko dio ea zergatik ezin duen amama bat eduki beste edonork eduki dezaken bezala.

Etxean asper-asper eginda dagoen egun batean, bere porrotean murgilduta, goiko etxebizitzan zaratak entzungo ditu. Amak esango dio, Itziar itzuli dela. Nor da Itziar? Eta amak esango dio kanpora joan zen auzokidea eta berriz ere itzuli egin dena.

Gure protagonistak eta Itziarrek sekulako konexioa izango dute. Itziarrek den dena daki tximeletei buruz, zizare izatetik, kapuilo bihurtu eta halako batean tximeleta bilakatzen dena. Eta gure eraginagatik desagertzen ari dira tximeletak, amamak bezala...

Itziar amamak hainbeste hainbeste gauza kontatuko dizkio, hainbeste kantu, hainbeste maitasun eskainiko dio eta batez ere bere Kutxa magikoa erakutsiko dio. Egurrezko Kutxa zahar bat, zerbait nahi duenean Kutxa zabaldu eta bertatik nahi duzun hori lortzeko "magia" aterako da.

Egun batean baina, amama Itziarri giltzak ahaztuko zaizkio, eta ahaztuko zaio bazkaltzea, eta gure protagonista kezkatu egingo da, eta Kutxa irekiko du amama ez zahartzeko. Baina Itziarrek esango dio, agian tximeleta bihurtzeko garaia iritsi zaiola. Amama Itziar abesten hasiko da, elkarrekin abesten zuten abestia.

Eta...



Tratamendu dramatiko

Oso gertuko pertsonaia da antzezlan honen ardatz nagusia: amama. Amama da gure zutabe nagusia. Haurrek beti ezagutu dituzte adinekoak direla... zaharrak, azal zimurtuarekin eta ahots nekearekin, eta zahartzaroak dakarren guzti hori ere esploratu nahi dugu, haur eta amama baten artean sortzen den lotura eta lotura horrek egingo duen bidea.

Ez da bide bakarra izango, eta hain zuzen ere horixe nahi dugu taularatu, aniztasuna, desberdintasuna, istorio eta errealitate ezberdinak, amamak gazteak izan zireneko kontuak, inklusioa, errespetoa, genero berdintasunaren atzera bueltarik gabeko bidea, eta horretan amamak egin duten bidea... Hainbeste dago kontatzeko!

Gure protagonistak ordea, ez du amamarik, eta amama edukitzearen ametsarekin bizi da. Amama ezberdinak irudikatu edo agertuko zaizkio, baina azkenean gertu duen amama maitagarri batekin egingo du topo. Eta bilatzen ibiltzetik topatuko duen arteko bidean murgilduko gara, proposamen bizi eta aktibo baten bidez, baina poesiaz eta magiaz beterikoa ere. Baina batez ere, ikusleek amama batek erakutsi dezakeen ederrenaz gozatzea nahi dugu; transmisioak duen aberastasun guztiak, mimo eta maitasunez eskainia, baina jolas baten modura. Protagonista den neska honek duen arazoan murgildu, eta bere eskutik egingo dugu etenik gabeko bidea, baina kolore, doinu eta erritmo ezberdinak dituen antzezlanaren eskutik. Jakin badakigu gainera, adin honetako neska mutilek arreta mantentzeko bizitasun eta ezustez betetako antzerkia maite dutela, eta horixe da egin nahi

duguna. Baina era berean, gauza berriak erakutsiko dizkiena, eta bereziki begirada ezberdin bat eskaini amamari buruz, adinari buruz, zaintzari buruz eta maitasunari buruz. Errealitate oso gertu eta oso urrun egongo den kontakizun bat. Nahiak, ametsak, jolasak, esaera zaharrak, irudiak, ipuinak, garai bateko jostailuak, mozorroak, abestiak eta egia borobila izango duen antzezlan, maitasuna alegia, biloba eta amama baten arteko maitasun infinitoa.

Amamaren haurtzaroko kantuak, esaera zaharrak, kontakizunak baina baita bere amamak esaten zizkionak ere ekarriko ditugu. Liburuak, istorioak, ipuinak...

Hizkera erraz, eta oso biziarekin, eta batez ere, dialogo laburrekin.

Aktoreen lan ikaragarrian oinarrituko da antzezlan, haiek izango baitira pertsonaia ezberdinen unibertso osoa sortuko dutenak, eta beraien eskutik egingo dugu amamen mundurako bidaia alai, magiko, eta maitagarria.



Pertsonaiak

LEA, bera da gure protagonista. Alaia da, oso. Maitagarria. Baina era berean egoskorra eta tematia, ezezkorik onartzen ez duen horietakoa. Bere izaeraren arazorik handiena da... inuzente hutsa dela, eta den dena sinetsi eta barneratzen du erabateko garrantzia emanaz gertatu edo pentsatzen duen guztiari. Onerako eta txarrerako.

Antzezlan honetan, oso garrantzitsua da haur honen muturreko joera horretatik abiatzea, amama bat eduki behar izatearen bidai horretan ikusleak ere murgiltzeko. Ulertzeko. Jolasteko. Amesteko...

Bere ikuspuntuak ohikotasuna hautsiko du, horrek emango dio berezitasuna antzezlanari.

Learen manta majiko bere pentsamenduen eta bere gogoeten gauzatzeko modua da. Bertatik aterako ditu, zaku majikoa balitz bezala, behar dituen objektu guztiak, jantziak, edota proiektoreak beren filmekin edo irudiekin.

Learen mundua aberatsa da, eta aberastasun hori ez da hitzez bakarrik kanporatuko, baizik eta txotxongiloen bidez, abestuz, bertsoz edo hitz joko eta esaera zaharrez. Hitza kontakizunaren parte izateaz gain, jolasteko bidea ere izango da.

Musika, dantza, ikus-entzunekoa... dena izango da Learen adieraz bide.

Berarekin bidaia egitea abentura entretenigarria eta maitagarria izango da.

AMAMA. Gure AMAMA ez da ohiko amama bat, ez da guk nahiko genukeena, edo amesten duguna. Ez da perfektua. Ez. Hori

baino askoz gehiago da. Ikaragarri maiteko dugun amama da. Asko daki, baina ez da kontaketetan galduko, baizik eta erakutsi egingo digu dakien hori. Abestuko du. Jolastuko du. Eta bere mundura eramango gaitu. Amamen mundura. Mundu majiko horretara eramateko pertsonaiak "handia" izan behar du. Eta handitasun horrek guztia busti behar du, guztia bete. Galdu egingo da. Gauzak ahaztu egingo zaizkio. Dantza zoro moduan egin ondoren belaunak min emango dio... baina ez dago bera bezalakorik munduan!

Amamak transmisioaren aberastasun guztia eskainiko digu, eta bereziki ikusleei aurreko belaunaldien jakintza, kantuak, jokoak, ikusteko modua... erakutsiko dizkigu. Gure amama gehiago maiteko dugu Amama oholtza gainean ikusiz.

Bere eskilaran gaineko kokalekutik edo bere besaulkitik amama ezagutzen joango gara. Gurea egiten.

Antzezlanaren amaieran, Leak sentituko duen bezalaxe, ikusle guztiok pentsatuko dugu: baina nola bizi ahal izan du Leak amamarik gabe?!

Beste pertsonia batzuk:

AMA. Learen pentsamendu eta nahiak kolpatuko diren horma izango da. Oso lanpetuta, egin beharrekoa egiten.

BESTE AMAMA GUZTIAK. Lea amamaren bila dabilenean agertuko diren amama guztiak.

Istorioaren garatzen ari den neurrian sortuko diren pertsonaia guztiak: Grabazioen bidez agertuko direnak, txotxongiloak, edota bi aktoreek sortuko dituztenak.

Fitxa Artistikoa

Gidoia:

Aizpea Goenaga

Zuzendatza artistikoa:

Ugaitz Alegria

Antzezleak:

Nagore Gonzalez eta Idoia Tapia

Musika:

Inun

Soinu eta Argi teknikaria:

Xabi Urritikoetxea

Soinu espazioa:

Kantauri estudioa

Jantziak:

Ana Franco

Ilustrazioa:

Dani Padron

Diseinua:

BLK Komunikazioa

Ikusentzunezkoak:

Traola Produzioak

Argazkiak eta Komunikazioa:

ilara

Ekoizpena:

eidabe

Kontratazioa:

eidabe



amama
irrifarreeren ondarea

